

**FISIKA-KIMIKA1 : DISOLUZIOAK
ERREPASOKO ARIKETAK (1,2)**

1.- Azido sulfuriko komertzialaren botilaren etiketan hurrengo datuak agertzen dira: %70 eta $d=0,3$ g/L.

- a) Azaldu datu bakoitzaren esanahia.
- b) Kalkulatu azido komertzialaren molartasuna.(0,00214M)
- c) Azido komertzial horretatik 100mL hartzen badugu, zenbat gramo azido sulfuriko purua hartzen ari gara?.(0,021g)
- d) Aurreko galderaren (c) 100mL hauei , 150mL ur distilatua gehitzen badiogu zein izango da disoluzio berriaren kontzentrazioa, g/L-tan?. Zenbat mol azido sulfuriko puru dago disoluzio berrian?.(0,084g)
- e) Aurreko galderaren (d) disoluzioari 75g azido sulfuriko gehitzen badiogu, zein izango da disoluzioaren molartasuna?.(3M)

DATUAK: S=32 ; H=1u; O=16u

2.- 7,2 g sakarosa $C_{12}H_{22}O_{11}$, 103,5g uretan disolbatu ditugu.Disoluzioaren bolumena urak hasieran zuen bolumenaren berdina dela kontuan izanda,kalkula itzazu:

- a) Sakarosaren masa-portzentajea.(%6,5)
- b)Disoluzioaren kontzentrazioa g/L-tan.(70g/L)
- c) Disoluzioaren Molartasuna.(0,2M)

DATUAK: Uraren dentsitatea $1g/cm^3$; Masa atomikoak: C=12u; H=1u;O=16u .